# ETXEAREN ERRAIAK

## Arte lehiaketa: etxearen iruditegia auzitan

Etxea, bere adiera hertsian, bizitzeko baliatzen den egitura arkitektonikoa da: norbanakoei gure bizitzak garatzeko espazioa eta aterpea eskaintzen diguna. Ordea, etxea eraikuntza sinbolikoa ere bada, familiarekin, intimitatearekin, ametsekin eta bestetzuekin erlazionatzen diren irudikapenez ondurikoa, eta "etxean bezala inon ez" gisakoak pentsatzera garamatzana.

Jakina da, hala ere, etxea biolentziarentzat gotorleku ere izan daitekeela, emakumeek bizitzen eta pairatzen dituzten hainbat indarkeriak etxearen esparru pribatuan hartzen baitute leku: ordaindu gabeko etxeko-lanek bultzatutako lanaldi amaigabeek, baliabideak ez izateagatik jasan beharreko biolentzia materialak edota, muturreko kasuetan, zuzeneko indarkeriak.

Gauzak horrela, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) arte lehiaketa bat antolatu du, gazteek etxebizitzaren inguruko iruditegi sozialaren eta iruditegi horren arrakalen inguruan dituzten sentimenduak, gogoetak eta ikuspuntuak isla ditzaten.

## Parte-hartzaileak

16 eta 30 urte artean dituen gazte orok har dezake parte.

## Gaia:

Etxebizitza eta generoa

## Lanen ezaugarriak:

Etxebizitzaren iruditegi sozialaren inguruan lan bat ontzea, nahi den adierazpide artistikoa erabilita: poema bat, testu narratibo bat, bertso bat, ilustrazio bat, argazkigintza… Zehazki, genero ikuspuntua aintzat izatea baloratuko da, eta etxeak ezkuta ditzakeen biolentzia mota ezberdinei erreparatzea: indarkeria matxista, lanaren banaketa…

## Nola entregatu:

Ondutako lana berdintasuna@egk.eus edo etxebizitza@egk.eus helbideetara bidali beharko da. Lana bideotatik bidali ezin izatekotan, EGKren hiru bulegoetako batera hurbildu ahal izango da. Formatuaren arabera, lanaren argazkiak ere onartuko dira.

## Entregatzeko epea:

Lana entregatzeko epea 2025eko uztailaren 18 arte izango da.

**Epaimahaia:**

Epaimahaia EGK-ko Berdintasun Teknikariak, Etxebizitza Teknikariak eta Koordinatzaileak osatuko dute.

**Sari-banaketa:**

Irailaren 12an irabazleak iragarriko dira.

Irailaren 25ean, sari-banaketa egingo da Donostian egingo den ekitaldi baten baitan.

**Sariak:**

Sari bereziak jasoko dituzten hiru irabazle egongo dira.

- Donostiako “La Perla Spa”n erlaxatzeko egun baterako sarrerak (bi pertsona).
- Kursaalerako opari txartela (100 euro).
- Elkar dendarako txartela (50 euro).

**Concurso de arte: Etxearen Erraiak**

La casa, en su sentido estricto, es la estructura arquitectónica en la que se vive: la que nos ofrece a las personas un espacio y un refugio donde desarrollar nuestras vidas. Sin embargo, la casa es también una construcción simbólica, con representaciones que se relacionan con la familia, la intimidad, los sueños y demás, y que nos lleva a pensar que «como en casa en ningún sitio».

Es sabido, sin embargo, que la casa puede ser también un baluarte para la violencia, ya que diversas violencias que viven y sufren las mujeres se materializan en el espacio privado del hogar: las interminables jornadas de trabajo doméstico no remunerado, la violencia material por falta de recursos o, en casos extremos, la violencia directa.

Así, el Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) ha organizado un **concurso de arte** para que las personas jóvenes reflejen sus sentimientos, reflexiones y puntos de vista sobre el imaginario social en torno a la casa y las grietas de dicho imaginario.

**Participantes:**

Cualquier persona joven de entre 16-30 años.

**Tema:**

Vivienda y género.

**Caracteristicas de los trabajos:**

Elaboración de un trabajo en torno al imaginario social de la vivienda, utilizando la expresión artística deseada: un poema, un texto narrativo, un verso, una ilustración, la fotografía... En concreto, se valorará la perspectiva de género y los diferentes tipos de violencia que puede ocultar el hogar: violencia machista, división del trabajo...

**Cómo entregar:**

El trabajo se enviará a berdintasuna@egk.eus o etxebizitza@egk.eus. En caso de no poder enviar el trabajo por estas vías, la persona participante podrá acercarse a una de las tres oficinas de EGK. Según el formato, también se aceptarán fotografías de la obra.

**Plazo de entrega:**

El plazo de entrega del trabajo será hasta el 18 de julio de 2025.

**Jurado:**

El jurado del concurso estará conformado por la Técnica de Igualdad, la Técnica de Vivienda y la Coordinadora de EGK.

**Entrega de premios:**

El 12 de septiembre se anunciaran las personas ganadoras.

El 25 de septiembre se hara la entrega de premios en un evento en Donostia.

**Premios:**

Habrá tres personas ganadoras que recibirán premios especiales:

- Entradas para un día de relax en "La Perla Spa" de San Sebastián (dos personas).
- Tarjeta regalo Kursaal (100 euros).
- Tarjeta tienda Elkar (50 euros).